



Esp. kodea: 2021KAMU0003  
Titularra: ARRASATE MUSIKAL

Gaia: 2021eko hitzarmena  
Hasiera data: 2021/05/31

## Hitzarmena

Lankidetzaz Hitzarmena

Arrasateko Udala eta Arrasate Musikal Kultura elkartearen artekoa

Alde batetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Alkatea, bestetik

Utzune Urrizalki Jauregi 18.591.686G NAN zenbakiaz, Arrasate Musikal kultura elkarteko lehendakaria

Alde biek hitzarmen hau egin eta sinatzeko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta hau adierazi dute

### AURREKARIAK

1.- Arrasate Musikal Kultura elkarteak sortu zen 1972an musika eskola modura. Harrezkero musika eskolen eskaintza moldatu du indarrean egon den hezkuntza arauetara.

2.- Gaur egun Arrasate Musikalek, musika eskola den aldetik, 289/1992 Dekretuak xedatutako arauen arabera funtzionamendua du. Bere eskaintza kokatu behar dugu arautu gabeko musikaren irakaskuntzaren eremuan.

3.- Musika eskola gisa diharduenetik Arrasate Musikalek esan Dekretuan jasotako helburuak ditu ardatz, honako hauek bereziki:

a) Gizarteak luze-zabal eskatzen duen musika-kultura praktikoari erantzutea, hain zuzen musikazaleak horren bidez bere burua hobetzea eta bere kultura eta adierazpidearen altxorra handitzea bilatzen baitu, bere buruarekin eta inguruarekin oreka handiagoa izateko.

b) Musika eskola arautu gabeko eta funts-funtsean praktikoa den MUSIKA-IRAKASKUNTZA eskaintzeko da, batez ere taldekako musika egin ahal izateko.

Arrasate Musikalek bere jardura bideratuko du musika ikasi eta zabaltzera, musikaz jakin eta gozatzen, curriculum malgu batez, zeinak ez duen helburu titulazio akademikoa, baina eskaintzen duena bai kalitateko irakaskuntza bat, instrumentu jotzaileak eta musika taldeak prestatzeko, bai prestakuntza pertsonal bat, lagundu gura duena gizartean musika eta kultura zabaltzen.

c) Ondorioz, ikaslearen partaidetza eragilea sustatu behar da batetik, bai bakar-lanean eta bai taldean, eta bestetik eskolaren eta berau errotuta dagoen gizartearen arteko loturak.



**Esp. kodea:** 2021KAMU0003  
**Titularra:** ARRASATE MUSIKAL

**Gaia:** 2021eko hitzarmena  
**Hasiera data:** 2021/05/31

d) Musika kontuak orokorrago ulertu ahal izateko ezinbesteko diren gutxienezko gai teorikoak emango dira, eta hasteko behintzat, ikasleak gaiak sakonago jakiteko premia duen heinean berak horrela eska dezanean emango ere.

e) Adina kontuan izan gabe eskainiko da zerbitzua: haurrak, gazteak, zein helduak.

Egingo da eskaintza zabala eta askotarikoa udalerriko herritar guztiei, hasi haurtzarotik (4 urte) eta ezelako muga barik, ez bada gogo bizia eta dedikazioa musika ikasteko.

f) Musika-jardueren artean dauden aukera guztiak eskaintzea: musika klasikoa, antzinakoa, modernoa, tradizioan oinarritutakoa, herrikoia, joera desberdinetakoa, rocka, jazza, musika elektronikoa, etab.

g) Irakaskuntzako egitarauak ikaslearen interesari, emanari eta martxari egokituko zaizkie, baina, ikasleek ere, beraiek jasotzen dituzten irakaskuntzei probetxu egokia ateratzeko gutxienezko baldintzak bete behar dituztela ahaztu gabe.

Azken batean, euren eskaintzaren plana egiterakoan askatasuna eta autonomia dauka, ikaslearen interes eta gaitasunetara hobeto egokitzeko.

h) Estilo guztietako musikak entzuteko gogoia indartzea eta kritikarako gaitasuna garatzea, bai ikasleengan eta bai herritarrengan.

i) Irakaskuntzarako tekniken hobekuntza sustatzea, irakasleak eten gabe hobetuz eta egunean jarriaz.

j) Euren gaitasuna eta interesa direnak direlako, araututako irakaskuntzetara sartzeko baldintzak bete eta asmoa agertzen duten ikasleei prestakuntza sakonagoa bideratzea eta ematea, mintegi hauetatik sortutako ikasle gogotsu eta gaituez hornituko baitira araututako musika-irakaskuntzetarako ikastetxeak.

k) Herriko eta eskualdeko musika-tradizioak bildu, taxutu eta zabaltzea, eskola kokatuta dagoen herriko kultura-nortasunaren gune bilakatuz.

l) Kolaboratzea herriko kultura eta hezkuntza esparruko gainerako erakundeekin musika zabaltzen.

m) Kolaboratzea eta parte hartzea autonomia erkidegoko eta, batez, ere, inguruko beste eskola batzuekin topaketetan, jaialdietan eta kultura ekintzetan.

4.- Zentzu honetan ikasle guztien partaidetza bultzatu du musikaren jarduera ugaritan, eta nola ez, herri mailako ekimenetan ere parte-hartzaile eraginkorra bilakatu da.

5.- Arrasateko Udalak musikara hurbiltzen lagundu gura die pertsona guztiei, eskolako ikasleei, hango familiartekoei, bizilagunei, eta lagundu gura du ikasleen sentsibilitatea garatzen, musika erabiliz ibilgailu bat moduan emozioak helarazteko, eta norberaren komunikabide moduan, izan ere, jeneralean musika da modu bat ezin hobea kulturaren sartzeko.

6.- Ikusmira horrekin erakundea sortu zenetik haren sostengua bilatu izan du Udalak, eta 1993a ezkerre, Musika eskolen dekretua indarrean sartu zenetik, bat egin Eusko Lege Biltzarrak finantziatorako proposatutako banaketarekin, musika eskolaren finantziazioa hiru zatitan banatzeko egitasmoarekin, alegia.



**Esp. kodea:** 2021KAMU0003  
**Titularra:** ARRASATE MUSIKAL

**Gaia:** 2021eko hitzarmena  
**Hasiera data:** 2021/05/31

Horren arabera, Arrasate Musikalen finantziazioa hiru zatitan banatuko da: Arrasateko Udala, Eusko Jaurlaritza eta gurasoak, erakunde bakoitzak bere gain hartuz musika eskolaren gastuaren %33. Finantziazio eredu hori hainbat bider aldarrikatu du Arrasateko Udalak, azken aldiz, 2018/03/06ko Udalbatzak aho batez onartutako adierazpen instituzional bidez.

7.- Arrasateko Udalaren borondatea da etorkizunean Arrasate Musikalen musika eskaintza bermatzea orain arteko kalitate baldintzatan.

8.- Arrasateko Udalak eta Arrasate Musikalek formula batzuk aztertuko dituzte beka lerro bat sortzeko, bazterkeria arriskuko egoeran dauden pertsonentzat edo kolektiboentzat, eta/edo arrazoi ekonomikoengatik musika ikasi ezin duten pertsonentzat edo kolektiboentzat.

9.- Hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik musika ikasketak euskaraz izateak berebiziko garrantzia du, hezkuntza arautuaren osagarri den neurrian, haur gazte eta heldu askok ikasten dutelako bertan. Hori dela eta hitzarmen honetan hizkuntza irizpideak txertatzea garrantzitsua da.

10.- Hitzarmen hau gauzatzeko eskumena aitortzen dio Udalari 2/2016 Legeak, Toki Erakundeei buruzkoak. Legearen 17. Artikuluak jasotzen du Udalaren eskumen propioen artean hauek:

“20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea

23) Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea”

Aurrekari hauekin bat etorrira, hitzarmenaren klausula hauek adostu dituzte:

1.- Hitzarmen honen xedea da 2021 urtean Arrasate Musikal kultura elkarte eta Arrasateko Udalaren arteko harremana arautzea, eta zehaztea alde bakoitzaren betebeharrak.

2.- Udalaren dirulaguntza: Arrasateko Udalak 2021 urtean Arrasate Musikal kultura elkartearen sostengu ekonomikoa eta egitasmoa bermatzeko 325.000 euroko dirulaguntza emango dio.

2.1.- 2021ko aurrekontua: Arrasate Musikalek aurkeztu behar du 2021ko urtarrilaren 15a baino lehen 2021 urterako aurreikusten duen gastu eta sarreraren kontu orokorra.

2.2 Diru laguntza ordaintzea, horrela banatuko da :

a) Beharren arabera banatuko da urtean zehar.

b) Dirulaguntzaren azken zati bat gera liteke ordaindu barik 2021eko dirukontuen itxiera aurkeztu arte. Itxiera aurkeztu beharko da 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen, informazio horren arabera erabakiko da azken zati hori beharrezkoa ote den ala zein neurritan den deitzekoa.

2.3.-Diru laguntzaren ordainketa bakoitza egin ahal izateko Arrasate Musikalek aurkeztu beharra izango du honako dokumentazioa:

- aurreko hilabeteko diru kontuen bilakaera agertuko duen txostena

- Hurrengo hiruhilabetekorako gastu eta sarreraren aurreikuspena.



**Esp. kodea:** 2021KAMU0003  
**Titularra:** ARRASATE MUSIKAL

**Gaia:** 2021eko hitzarmena  
**Hasiera data:** 2021/05/31

2.4 Urteko diru kontuen itxiera. Arrasate Musikalek aurkeztuko du 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen 2021ko diru kontuen itxiera Udal aurrekontuaren kontu saila ere itxi ahal izateko.

2.5 Diru kontuen auditoria. Udalak emandako diru laguntza justifikatzeko Indarrean dagoen diru laguntzen ordenantza betetzeko Arrasate Musikalek aurkeztu du 2022ko maiatzaren 30 baino lehen 2021 urteko diru kontuen auditoria.

3.- Arrasate Musikalen egoitza. Arrasateko Udalak Monterron Jauregia laga dio Arrasate Musikali musika eskolaren egoitza modura erabili dezan. Monterron Jauregiak ez duenez betetzen musika eskolak dituen espazio beharrak Udalak laga dio Euskararen plazako eraikinean bi lokal. Horietako bat dantzaren irakaskuntzarako erabiliko da eta bestea instrumentu klaseak emateko; une honetan gaita klaseak ematen dira bertan. Lokaletako erabilerak dakartzan gastuen kargu egingo da Arrasate Musikal, eta kontratatuko du aseguru poliza bat erantzukizun zibileko arriskuari aurre egiteko.

4.- Kontraprestazioak: Arrasate Udalak Arrasate Musikalen eskura jartzen duen laguntza osoa, diru laguntza bidez nahiz ibilgetuen lagapen bidez, gizartera bueltatzeko helburuarekin Arrasate Musikalek ekintza hauetan parte hartuko du herriko kultura eta jai jardueretan partaide bilakatuz, beti ere bizi dugun COVID-19 pandemiaren agerak ahalbidetzen dituen aukeren arabera:

a) Arrasate Musikalen musika banda

- Sanjuanetako kultur egitarua
- Santa Cecilia egunaren inguruan kontzertua
- Gabonak: abenduaren 31ean kalejira eta eguerdian kontzertua

b) Arrasate Musikaleko orkestra, kasuan kasuko aparteko konpentsazio ekonomikoa adostuta orkestrak emanaldi baten parte hartzea aztertuko da.

Banda eta orkestraren ekitaldietan materiala eramateko Udalak laguntza emango du bitartekoez posible egiten duten neurrian.

c) Big Band taldea. Kasuan kasuko aparteko konpentsazio ekonomikoa adostuta Big band taldeak emanaldi baten parte hartzea aztertuko da.

d) Arrasate Musikaleko ikasleen entzunaldiak, oro har, herritarrei irekiak izango dira, arrazoi pedagogikoez edo bestelakoez eragozten ez badituzte behintzat.

e) Arrasate Musikal prest izango da aztertzeko musika eskolaren talde batek parte hartzeko aukera herriko jaietan (herriko jai nagusiak, nahiz auzoetako jaiak) nahiz kultura jarduera garrantzitsuetan.

Udalak eskatu ditzakeen protokoloa ekintzetan, kontuan hartuko da prestutasuna, bai ikasleena, bai irakasleena, eta behar beste denborarekin, haien parte hartzea bermatzeko edo beste alternatiba batzuk aztertzeko. Parte hartze horrek konpentsazioa izan dezake, eta hori aztertuko da kasuz kasu.

f) Emanaldi berriak bultzatzea Arrasate Musikalen

Arrasate Musikalek, bere ikas prozesuan, hauek jasotzen ditu: musika instrumentuak erabiltzen irakastea, musika interpretatzen hobetzea banaka eta taldeka, baita ere, hori guztia praktikan jartzea



**Esp. kodea:** 2021KAMU0003  
**Titularra:** ARRASATE MUSIKAL

**Gaia:** 2021eko hitzarmena  
**Hasiera data:** 2021/05/31

jendaurreko kontzertuetan. Seguruena azken horrek sortuko du satisfazio handiena ikasleen artean zein herritarren artean, eta era berean horrek ekarri ditzake diru sarrera batzuk Arrasate Musikalentzat. Hortaz, udaletik gomendatzen dugu plan bat egitea hori guztia bultzatzeko.

g) Ekintzen zerrenda hau ez da itxia eta Udalak eta Arrasate Musikalek elkarrekin adostu dezakete handitzea.

5.- Erabakiak partekatzea Musika eskolaren jardueran eragina izango duten erabakiak Udalarekin partekatuko du Arrasate Musikalek, bereziki eragin ekonomikoak ekarriko dituztenak. Ez dadin gertatu koordinazio desegoki batek ezustekorik edo disfuntziorik sortzea bi erakundeon artean

6.- Hizkuntza irizpideak. Arrasate Musikalek hizkuntza irizpide hauek jarraituko ditu:

1.-Mezu idatziei (kartel, iragarki, esku programa, liburuxka, eskaintzak...) dagokienez, euskaraz edo ele bietan idatzi beharko dira. Elebitan idatzitako testuetan euskarazko zatia bereziki nabarmendu beharko da.

2.-Ahozko komunikazioetan ere euskara erabiltzera joko da, eta bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna gaztelaniaren aurretik azalduz.

3.-Euskara sailetik "Gu be bai" programaren barruan, Arrasate Musikalerako egindako normalizazio planaren jarraipena egingo da: betetze maila aztertu, eta hobekuntza proposamenak landuko dira. Normalizazio plana garatzeko aholkularitza Arrasateko Udaleko Euskara zerbitzuak emango du.

7.- Hitzarmenaren jarraipena egiteko osatutako da lantaldea. Lan taldea hauek osatuko dute: Arrasateko Udalaren ordezkariak izango dira Kultura eta Euskara Batzordeko burua eta Kultura teknikaria, eta Arrasate Musikal ordezkariak du Marta Izagirre zuzendariak. Hiru hilabetetik behin elkartuko dira proiektuen garapenaren berri izateko.

8.- Hitzarmen honen ez betetzeak edozein alderdiren aldetik ekarriko du bertan zehaztutako konpromisoetatik libre geratuko dela ez betetzea burutu ez duen alderdia. Edozein kasutan, ez betetze honek ekar dezake hitzarmena suntsituztat ematea 40/2015 Legeko 51. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoa aplikatuz.

9.- Arrasate Musikalek bere jardueretan Udalaren laguntza jaso duela iragarriko du

Arrasaten 2022ko uztailaren 16an

